# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-228

1/1999 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohien Estatutua arautzen duena.

Lehendakariak, Eusko Jaurlaritzako lehendakari gisa eta gure Erkidegoan Estatuaren ohiko ordezkari modura, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari nagusiaren kargua du.

Ordezkaritza honen garrantziak, eta dagokion izenak, lehendakariari bere agintea bukatzean bere karguaren lehentasuna eta duintasuna bermatzea aholkatzen du.

Ondorioz, eta legez lehendakari ohien estatutu pertsonala arautzen duen behin-betiko erregimena onartzen ez den bitartean, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko urtarrilaren 12an egindako bileran aztertu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Tratamendua eta ohoreak.

1.– Lehendakariak, bere kargua utzita gero, bizitza guztirako, «Lehendakari» tituluaren ohorezko erabilera egiteko eskubidea izango du, Jaun Txit Gorenaren tratamendua mantenduko du, eta Eusko Jaurlaritzako kideei dagokien tokiaren hurrengoa beteko du.

2.– Halaber, bere tituluari dagozkion lehentasun eta duintasunaren araberako ohoreak egingo zaizkio, gai horretan indarrean dauden arauen arabera eta, egoki denean, aurreko atalean ezarrita dagoen lehentasun-protokolarioa kontutan izanik.

*2. atala.–* Bere zerbitzuan izango duen pertsonala eta baliabide materialak.

1.– Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, bere agintea bukatuta gero, honako baliabide hauek izateko eskubidea du:

a) Laguntza Idazkaritza bat, bere proposamenez izendaturiko pertsona batekin.

b) Bulego bat, Euskal Autonomia Erkidegoak bere esku jarriko duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ibilgailuen parkeko kotxe bat, bere proposamenez izendaturiko gidariarekin.

2.– Eskura jartzen diren baliabideak, atal honetan aipatzen direnak, erabiliz sortzen diren gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura izango dira. Laguntza Idazkaritzako pertsonala eta gi-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-228

DECRETO 1/1999, de 12 de enero, por el que se regula el Estatuto del ex Lehendakari del Gobierno Vasco.

El Lehendakari, en su calidad de Presidente del Gobierno Vasco y representante ordinario del Estado en nuestra Comunidad, ostenta la máxima representación del Pueblo Vasco.

La relevancia de esta representatividad, y el prestigio que le corresponde, aconsejan garantizar al Lehendakari, al término de su mandato, la preeminencia y dignidad de su cargo.

En su virtud, y en tanto no se apruebe por Ley el régimen definitivo que regule el Estatuto personal del ex Lehendakari, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión de 12 de enero de 1999,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Tratamiento y Honores.

1.– El Lehendakari al cesar en el cargo mantendrá, con carácter vitalicio, el derecho al uso honorífico del título de «Lehendakari», así como al tratamiento de Excelentísimo Señor, y ocupará el lugar inmediato al que corresponda a los miembros del Gobierno Vasco.

2.– Asimismo, le serán rendidos los honores que en razón a la preeminencia y dignidad de su título le corresponden, con arreglo a las normas vigentes en la materia, de acuerdo, en su caso, con la prelación protocolaria establecida en el apartado anterior.

*Artículo 2.–* Medios personales y materiales.

1.– El Lehendakari del Gobierno Vasco, al finalizar su mandato, tendrá derecho a disponer de los siguientes medios:

a) Una Secretaría de apoyo, dotada con una persona nombrada a su propuesta.

b) Un local de oficina, puesto a su disposición por la Comunidad Autónoma Vasca.

Un automóvil de representación perteneciente al parque móvil de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca, con un asistente-conductor nombrado a su propuesta.

2.– Los gastos generados por los medios puestos a disposición en este artículo se atenderán con los créditos consignados al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma Vasca. El personal co-

daria behin-behineko langileekin beteko dira, langileok lanpostuen zerrendetan sartuaz eta euren aurrekontu dotazioak ezarriaz.

3.– Kargua uzten dutenetik bi urte igarotakoan, Laguntza Idazkaritzako pertsonal izateko aukera bertan behera garatuko da kasu honetan: lehendakari ohiek, ordainsaria jasota, izaera publiko edo pribatuko jarduerak burutzea; baina, honako salbuespen hau kontutan izanda, Jaurlaritzako kideentzako ere bateragarriak izatea jarduerak.

*3. atala.–* Jarduera instituzionala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Erakundeek hala eskatuta, egiten dituzten berariazko ordezkaritza zerbitzuak direla-eta, sortzen zaizkien gastu guztien ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiek.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Dekretu hau argitaratu baino lehen agintea utzi zuten lehendakarientzako ere balio dute dekretu honetako xedapenek.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urtarrilaren 12an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

rrespondiente a la Secretaría de apoyo y al asistente-conductor, se proveerán con personal eventual, mediante su inclusión en las correspondientes relaciones de puestos de trabajo y su dotación presupuestaria.

3.– Transcurridos dos años desde la fecha del cese, la disposición del personal de la Secretaría de apoyo quedará en suspenso, en los casos y por el tiempo en que se realicen por parte del ex Lehendakari del Gobierno Vasco actividades retribuidas de carácter público o privado, salvo aquellas que fueran compatibles para los miembros del Gobierno.

*Artículo 3.–* Actividad Institucional.

El ex Lehendakari del Gobierno Vasco como consecuencia de servicios específicos de representación encargados por las Instituciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca tendrá derecho a ser resarcido de cuantos gastos se vea obligado a realizar por razón de los mencionados servicios.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* El presente Decreto será también de aplicación a los Lehendakaris del Gobierno Vasco que hayan cesado en su mandato con anterioridad a su publicación.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de enero de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.